



BIDEO ETA ZINEMA IKASTALDIAK

Kanaldude telebista parte hartzailea herritarrekin lanean

20 urte pasa dira Kanaldude sortu denetik. 20 urte lanean, ekoizten, ikasten, esperimentatzen, gogoetatzen. Zer da telebista bat eta zein izan behar da bere funtzio edo betebeharra? Galdera zabala, baina Kanalduderentzat zalantzarik gabe herritarrekilako hurbiltasuna da gakoa. Hurbiltasun hori era ezberdinetan sustatzen da, batez ere edukiak molde parte-hartzailean ekoiztuz eta bideogintza tresna demokratizatuz.

Horiek hola, Kanaldudek daraman lurralde animazio dinamikan kokatuz, zerbitzu publiko baten logikan, **Kanaldudeko Lagunak elkarteak bideo ikastaldiak proposatuko ditu urte osoan zehar**, Kanalduderekin partaidetzan. Ikastaldi horiek Bidarrain iraganen dira, Kanalduderen egoitzan **hilabeteko lehen larunbat guziz**. Bideogintzarako alor ezberdinak landuko dira, aldiro gai berezi baten inguruan.

Parte hartzea libre eta irekia da Kanaldudeko Lagunak elkartekideentzat. Besteek formakuntza egunean bertan bazkide egiteko aukera izango dute, 20 euroren truk. Aukera da ikastaro osoa jarraitzeko edo ikastaldi bat edo bestean baizik parte hartzeko.



Bestalde, **3 zinema ikastaldi** proposatuko dira udazken honetan, ondoko gaiaren inguruan: **“Zinemako eszena mitikoak ber egin euskaraz”**.

Tailer hauek urrik dira. Zinema praktikatzeko aukera da, molde jostagarrian ber eraikiz mundu osoko zinema eszena ospetsuak. Tailer bakoitzak 3 egun irauten ditu: lehen egunean gidoi tekniko eta artistikoak idazten dira, bigarrenegun filmaketa antolatzen da eta hirugarrenean filmaketa gauzatuko da.

18-25 urteko gazteei zuzendua da eta tailer bakoitza 6 pertsonetara mugatua izanen da.



Bideo Ikastaldiak

Hilabeteko lehen larunbat guziz

EGUNA	GAIA	NORK
Urriak 3	Kamerak: irudi eta soinu hartzea, oinarrizko ariketak	Eki Pagoaga
Azaroak 7	Irudiaren teoria: kuadroa, mugimendua, muntaketa	Haitz Aldana
Abenduak 5	Nola sortu erreportai bat	Pantxika Maitia
Urtarrilak 2	Soinua: praktika aurreratua	Kristof Ayez
Otsailak 6	Irudia: praktika aurreratu	Mathieu Gouilliard
Martxoak 6	Muntaketa: oinarrizko ariketak	Haitz Aldana
Apirilak 3	Muntaketa: praktika aurreratua	Mathieu Gouilliard
Maiatzak 1	Hedapena eta bideo formatuak	Eki Pagoaga
Ekainak 5	Multikamerak: inimizazio bat	Kristof Ayez
Uztailak 3	Multikamerak: Kanaldude Kamiona	Iban Rusiñol

EGITARAUA

9h30-10h00: Kafea eta solasaldiak, Kanaldudeko berriak: Azken hilabeteko lanak, galdera, ohar, bideo begiratze, ideia trukatzeko, ondoko proiektuak.
10h00-13h00: Eguneko ikastaldi gaia.

Ondoren elkarrekin bazkaltzeko aukera!

Bidarrai, 2020eko iraila. Kontaktua: eki@kanaldude.eus, 06.83.64.94.68

Zinema Ikastaldiak

Loic Legrand eta Itziar Leemansek eskainirik, 18-25 urtekoentzat bakarrik

EGUNAK	GAIA
Urriak 10,17,24	Lehen tailerra
Azaroak 14,21,28	Bigarren tailerra
Abenduak 12,19,20	Hirugarren tailerra

BIDEO EDO ZINEMA IKASTALDIETAN PARTE HARTZEKO

KLIK HEMEN IZENA EMATEKO

Kanaldudeko Lagunak elkarteko kide egiteko
[egin hemen klik!](#)

Ez **[KANALDUDE]**

ahantz! Kanaldude sustengatu dezakezu!
Eta

<https://kanaldude.eus/sustengatu>

Sustengatzeko aukerak:

**Aldi
bakarrekoa**

Aldi bakarrekoa eta
borondatezkoa

Hilabetero

6€-ko laguntza

eman hilero

Urte betero

60€-ko laguntza

eman urtean behin